

3

Udalerri erdaldunak euskalduntzen eta euskaldunak erdalduntzen, arnasguneak arriskuan. EAE, 1981-2011

Iñaki Iurrebaso Biteri

Soziologoa

iiurrebaso@outlook.com

Sarrera-data: 2015-03-30 | Onartze-data: 2015-06-25

Laburpena. Azken 30 urteotan EAEn gertatutako bilakaera soziolinguistikoa ez da homogenea izan lurraldean. Joerak asko laburtuz, esan liteke ingurune erdaldunenak euskalduntzen ari direla eta ingurune euskaldunenak erdalduntzen. Ñabardurak ñabardura, horixe da “Udalerri euskaldunak EAEn: egoera eta bilakaera, 1981-2011” ikerketaren ondorio nagusia. Artikulu honetan, ikerketa horren emaitza nagusiak aurkeztu eta horren inguruko gogoeta egin nahi dugu. Ikerketa horrek Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMAk) Soziolinguistika Klusterrari egindako eskaria du oinarri, eta 2015eko “Lurraldea eta Hizkuntza” jardunaldietan aurkeztu zen Donostian. • **Hitz gakoak:** *arnasgunea, lehen hizkuntza, etxeko erabilera, hizkuntza gaitasuna.*

Abstract. The sociolinguistic evolution that has taken place in the BAC (Basque Autonomous Community) over the last 30 years has not been homogeneous across the territory. To summarise many trends, one could say that the non-Basque-speaking areas are being Basquised and the most Basque-speaking areas are becoming non-Basque-speaking. Nuances notwithstanding, this is in fact the main conclusion of the research “Basque-speaking Municipalities in the BAC: situation and evolution, 1981-2011”. In this article, the author sets out to present the main results of the research and reflect on them. This research is based on a request made by the Association of Basque-speaking Municipalities (UEMA) to the Sociolinguistics Cluster, and was presented in Donostia-San Sebastian at the “Territory and Language” conference in 2015. • **Key words:** *breathing space, first language, use in the home, language aptitude.*

1. METODOLOGIA OHARRAK

I

Ikerketaren emaitzak aurkeztu aurretik, aipa ditzagun ikerketaren inguruko hainbat xehetasun metodologiko¹.

Zeharkako iturrien lanketa: zentsuak. Udalerri euskaldunen egoera eta bilakaera deskribatzea izan da ikerketaren xede nagusia. Horretarako, 1981. urtetik aurrera zentsuetan euskararen inguruan egin izan diren galderen udalerrikako emaitzak hartu eta ustiatu ditugu, eta hainbat irizpideren arabera multzokatu ditugu udalerrietako datuak, joera orokorrak atzeman ahal izateko.

Lurraldearen muga. Tamalez, gure azterketa EAera mugatu da. Izan ere, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan *Institut national de la statistique et des études économiques* (INSEEk) egiten dituen zentsuetan ez da hizkuntzarekin lotutako galderarik txertatzen eta guztiz ezinezkoa da lurralde horietan tankera honetako ikerketa bat egitea. Bestelakoa da Nafarroa Garaiko egoera: bertako zentsuetan galdetu izan da azken urteotan euskararen inguruan, EAeko modu berean galdetu ere. Nafarroako Estatistika Institutuak, ordea, ez ditu udalerrika argitaratu 2011ko zentsuko datuak. Ondorioz, ikerketan landutako metodologia ezin aplikatu daiteke oraingoz Nafarroa Garaira.

Jatorrizko iturria: Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT). EAeko udalerri euskaldunen egoera eta bilakaera aztertzeke, azken 30 urteotako zentsuetako datuak aztertu ditugu, EUSTATEk argitaratutakoak, zehazki.

Udalerri guztiei buruzko datuak landu ditugu. Udalerri euskaldunen errealitatea bere testuinguruan kokatze aldera, EAeko udalerri guztietako datuak erabili eta aztertu ditugu, izan udalerriak euskaldun edo ez.

Aztertutako aldagaiak. Zentsuetan hizkuntzari buruz lantzen diren hiru aldagaien inguruko udalerrikako datu guztiak aztertu ditugu: hizkuntza gaitasuna, lehen hizkuntza (edo ama-hizkuntza) eta etxeko erabilera. Inolako ezbairik gabe, aldagai garrantzitsuak dira hiru horiek eremu baten egoera soziolinguistikoa definitzeko orduan. Dena den, argi dago egoeraren argazkia egiteko, guk landu ez ditugun beste hainbat alderdi ere garrantzitsuak direla: euskararen egoera hezkuntzan, lagun artean, lan munduan, administrazioan, hedabideetan... Ikerketa hau, hortaz, lehen hurbilpen gisa hartu beharra dago, azken hitza esateko inolako asmorik gabe.

Tamalez, gure azterketa EAera mugatu da. Izan ere, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan Institut national de la statistique et des études économiques (INSEEk) egiten dituen zentsuetan ez da hizkuntzarekin lotutako galderarik txertatzen.

**Zentsuetan
hizkuntzari
buruz lantzen
diren hiru
aldagaien
inguruko
udalerrrikako
datu guztiak
aztertu ditugu:
hizkuntza
gaitasuna, lehen
hizkuntza (edo
ama-hizkuntza)
eta etxeko
erabilera.**

Udalerrri euskaldunak definitzeko irizpidea. Ikerketa horretarako, udalerrri bat “euskaldun” den edo ez erabakitzeko, UEMAK darabilen irizpidea hartu dugu abiapuntu. Horrela, udalerrri euskalduntzat hartu ditugu euskararen indizean %70eko balioa gainditzen duten udalerrriak. Honela kalkulaten da udalerrri baten euskararen indizea: udalerrri horretan bizi diren hiztunen artean euskaldunek osatzen duten ehunekoaren eta ia-euskaldunek osatzen duten ehunekoaren erdiaren batura, eta bat dator EAEko administrazioan lanpostuen hizkuntza-eskakizuna erabakitzeko erabili ohi den derrigortasun indizearekin. Hona hemen erabilitako formula:

$$\text{Euskararen indizea} = \text{Euskaldunen \%} + (\text{Ia euskaldunen \%} / 2)$$

Gure ikerketan, hortaz, udalerrri euskaldunak zein diren finkatzerakoan, UEMAK darabilen irizpidea eta izendapena (“udalerrri euskaldunak”) erabili ditugu.

Erreferentzia argigarria izango delakoan, esan dezagun, 2011. urtean, oro har euskararen indizean %70eko balioa gainditzen duten udalerriek %60ko balioa gainditzen dutela euskaldunen kopuruan. Hots, udalerrri euskaldunak, praktikan, euskaldunek %60ko pisua gainditzen duten udalerrriak direla EAEn 2011. urtean.

Udalerrriak multzokatzeko erabilitako irizpideak

Gure helburua udalerrri euskaldunetako egoera eta bilakaera aztertzea izanik, joera orokorrak antzemateko, udalerrrien multzokatzeko hauek landu ditugu gure ikerketan:

1. TAULA: IKERKETAN ERABILITAKO UDALERRIEN MULTZOKATZEAK

Ikerketa-eremuak (multzoak)	Multzokatzeko irizpidea	Ikerketa-helburua
Eremu naturalak bere horretan (herrialdeak, eskualdeak, udalerrriak)	-	Lehen hurbilpena
Udalerrri euskaldunak eta gainerakoak (bi multzo finko)	2011n udalerrriak “euskaldun” diren edo ez (euskararen indizea >%70)	Udalerrri euskaldunen egoeraz eta bilakaeraz datu orokor zehatzak eskuratzea eta gainerakoekin alderatzea

Hamar multzo finko (udalerri multzo egonkorrak)	Jatorrizko (1981ko) euskaldun-dentsitatearen araberako multzoak	Jatorrizko habitaten bilakaera soziolinguistikoa aztertzea (hizkuntza-gaitasuna, lehen hizkuntza, etxeko hizkuntza)
Hamar multzo aldakor (udalerri ugari multzoz aldatu dira zentsu-urte batetik bestera)	Euskaldun-dentsitatea zentsu-urte bakoitzean.	Habitat soziolinguistiko batzuen eta besteen pisuaren bilakaera aztertzea

Bilakaera-datuak aztertzeko, eta seriearen homogeneotasuna ziurtatzeko, Ziortza-Bolibarko eta Markina-Xemeingo bilakaera-datuak elkarrekin aztertuko ditugu, nahiz eta 2004an banandu ziren (horregatik, bilakaerari buruzko tauletan, 250 udalerri azalduko zaizkigu guztira, berez gaur egun Ziortza-Bolibarrekin 251 diren arren).

2. UDALERRI EUSKALDUNAK GAUR

I


2.1 Oinarrizko hainbat kopuru

EAEko 251 udalerrietatik erdiek gainditzen dute %70eko balioa euskararen indizean, 126 udalerrik, eta horiek hartuko ditugu, UEMAREN irizpideetan oinarrituta betiere, udalerri euskalduntzat. Udalerri horietan 335.729 herritar bizi dira, EAEko biztanle guztien %15,4.

2.2 Euskalduntasuna eta txikitasuna bat datoz

Udalerri euskaldunetatik bakarra ere ez da 25.000 biztanlera iristen, eta gehienak herri txikiak dira. Hala ere, udalerri euskaldunetako herritarren bi herenak 5.000-25.000 bitarteko udalerrietan bizi dira.

A. GRAFIKOA. UDALERRI EUSKALDUNAK, NEURRIAREN (BIZTANLE KOPURUAREN) ARABERA: UDALERRIAK ETA HORIETAN BIZI DIREN BIZTANLEAK. EAE, 2011




Iturria: norberak landua, EUSTATen 2011ko zentsutik abiatuta.

EAEko 251 udalerrietatik erdiek gainditzen dute %70eko balioa euskararen indizean, 126 udalerrik, eta horiek hartuko ditugu, UEMAREN irizpideetan oinarrituta betiere, udalerri euskalduntzat. Udalerri horietan 335.729 herritar bizi dira, EAEko biztanle guztien %15,4.

Udalerrri euskaldunetatik bakarra ere ez da 25.000 biztanlera iristen, eta gehienak herri txikiak dira. Hala ere, udalerrri euskaldunetako herritarren bi herenak 5.000-25.000 bitarteko udalerrietan bizi dira.

B. GRAFIKOA. UDALERRI EUSKALDUNETAN ETA GAINERAKOETAN BIZI DIREN BIZTANLEAK, BIZI DIREN UDALERRIAREN NEURRIAREN ARABERA. EAE, 2011



Iturria: norberak landua, EUSTATen 2011ko zentsutik abiatuta.

Azken urteotan asko entzuten da euskara geroz eta hizkuntza hiritarragoa, urbanoagoa dela, eta euskaldunen batez besteko inguruneak geroz eta zerikusi gutxiago duela nekazari giroko herri txikiekin eta geroz eta gehiago hiri-giroarekin. Hori guztia egia da, datuek erakusten duten bezala: 2011. urtean euskaraz hitz egiteko gai diren EAEko 789.439 hiztunen artean, adibidez, Bilbon, Donostian edo Gasteizen bizi dira lautik bat (%25,7), eta 1.000 biztanletik beherako herri txikietan, berriz, euskaldun guztien %3,5 bakarrik bizi dira.

2. TAULA: EUSKALDUNAK, BIZI DIREN UDALERRIAREN NEURRIAREN ARABERA. EAE, 2011

	Udalerrriak	Euskaldun hiztunak (kop.)	Euskaldun hiztunak (%)
1.000 baino gutxiago	100	27.375	3,5
1.000-5.000	80	94.154	11,9
5.000-25.000	55	309.958	39,3
25.000-100.000	12	154.856	19,6
Hiriburuak	3	203.096	25,7
GUZTIAK	250	789.439	100


Iturria: norberak landua, EUSTATen 2011ko zentsutik abiatuta.

Alabaina, oraindik ere, errealitate horrek ezin du ezkutatu beste bat: euskaldunek pisu handiagoa dutela, oro har, udalerrria zenbat eta

txikiagoa izan, eta gutxiago direla euskaldunak herri handiagoetan eta hiriburuetan. Oraindik ere, oro har, zenbat eta udalerrri txikiagoak, orduan eta euskaldunagoak dira, eta zenbat eta handiagoak, orduan eta erdaldunagoak. Muturretara joz, EAEko 1.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren herritarren %59,8 dira euskaldunak. Kopuru hori %27,0ra jaisten da EAEko hiru hiriburuetan bizi diren herritarren artean. Txikitasunaren eta euskalduntasunaren arteko harreman hori indar handiz gertatzen da Gipuzkoa osoan eta ia Bizkaia osoan, eta, horren eraginez, baita EAE orokorrean hartuta ere.

Zenbat eta udalerrri txikiagoak, orduan eta euskaldunagoak dira, eta zenbat eta handiagoak, orduan eta erdaldunagoak.

C. GRAFIKOA. EUSKALDUNEN EHUNEKOA HIZTUN GUZTIEKIKO (%), BIZI DIREN UDALERRIAREN NEURRIAREN ARABERA. EAE, 2011




Iturria: norberak landua, EUSTATen 2011ko zentsutik abiatuta.

2.3 Udalerrri euskaldunen profil soziolinguistikoa

Zentsuko datuak aztertuta, argi ikusten da alde esanguratsua dagoela, batez beste, udalerrri euskaldunen eta gainerakoen artean. Horrela, euskaraz hitz egiteko gai diren herritarrak %72,3 dira udalerrri euskaldunetan, eta %30,9 gainerakoetan. Lehen hizkuntzari erreparatuz, euskara lehen hizkuntza izan zuten herritarrak %58,4 dira udalerrri euskaldunetan eta %11,6 gainerakoetan. Etxeko hizkuntzari jaramon eginda, azkenik, %47,5 dira udalerrri euskaldunetan etxeko hizkuntza nagusi euskara dutenak eta %7,5 besterik ez gainerako udalerrietan. Udalerrri euskaldunen eta gainerakoen arteko alde soziolinguistikoak, hortaz, agerikoak dira. Ez zitekeen bestela izan, kategorien definizioa hizkuntza-gaitasunean oinarrituta egin dugu eta.


Euskaraz hitz egiteko gai diren herritarrak %72,3 dira udalerrri euskaldunetan, eta %30,9 gainerakoetan. Euskara lehen hizkuntza izan zuten herritarrak %58,4 dira udalerrri euskaldunetan eta %11,6 gainerakoetan. %47,5 dira udalerrri euskaldunetan etxeko hizkuntza nagusi euskara dutenak eta %7,5 besterik ez gainerako udalerrrietan.

D. GRAFIKOA. HIZKUNTZA-GAITASUNA UDALERRI EUSKALDUNETAN ETA GAINERAKOETAN. EAE, 2011




Iturria: norberak landua, EUSTATen 2011ko zentsutik abiatuta.

E. GRAFIKOA. HIZTUNEN LEHEN HIZKUNTZA UDALERRI EUSKALDUNETAN ETA GAINERAKOETAN. EAE, 2011



Iturria: norberak landua, EUSTATen 2011ko zentsutik abiatuta.

F. GRAFIKOA. ETXEAN HITZ EGITEN DUTEN HIZKUNTZA UDALERRI EUSKALDUNETAN ETA GAINERAKOETAN. EAE, 2011



Iturria: norberak landua, EUSTATen 2011ko zentsutik abiatuta.

Hala ere, udalerrri euskaldunak ez dira hainbatek pentsa zezakeen edo udalerrri horien izendapenak berak (“udalerrri euskaldunak”) aditzera eman dezakeen bezain *euskaldunak*. Hona hemen hori argi uzten duten bi datu: batetik, eta gaitasunari dagokionez, udalerrri horietako herritarren laurdenak baino gehiago (%27,7) ez dira euskaldunak. Gaitasunari buruz, gainera, zentsuek horren inguruko informaziorik jasotzen ez duten arren, argi dago udalerrri euskaldunetan euskaldunak %72 diren bitartean, udalerrri horietan bertan gaztelaniaz hitz egiteko gai direnak dezente gehiago izango direla, %90 baino gehiago inolako zalantzarik gabe.

Etxeko erabilerari buruzko datuek ere agerian uzten dute udalerrri euskaldunetan bi hizkuntzen indarra nahiko parekatua dagoela gaur egun. Horrela, erabilera aitortuari jaramon eginez gero, euskararen erabilera gaztelaniarenaren gainetik azaltzen zaigun arren, aldeak ez dira oso handiak: %47,5ek diote etxean nagusiki euskaraz mintzatzen direla eta %37,3k gaztelaniaz.

Horrela, bada, udalerrri euskaldunen egungo egoera soziolinguistikoari erreparatuta, esan behar da udalerrri multzo horren egoerak gehiago duela elebitasun egoera orekatu samarretik euskararen erabateko nagusitasunetik baino. Are gehiago, pentsa daiteke gaur egungo Euskal Herrian elebitasunaren ideiatik gertuen egon daitezkeen inguruak horiek direla hain justu, udalerrri “euskaldun” izendatu ditugun horiek edo horien zati nagusi bat bederen.

3. UDALERRI EUSKALDUNEN (ETA GAINERAKOEN) BILAKAERA, 1981-2011

■


3.1 Askotariko bilakaera-joerak EAEko udalerrri eta eskualdeetan

EAE osoan euskaldunen kopurua handitu egin da 1981. urtetik 2011. urtera: zehazki, %21,6 izatetik %37,2 izatera heldu da. Hazkunde hori, ordea, ez da homogeneoa izan lurraldean, eta alde handiak daude eremu batzuetatik besteetara. Horrela, badaude udalerrriak 1981-2011 aldian euskaldunen pisua asko handitu dutenak eta badira udalerrriak euskaldunen pisuan galera handiak izan dituztenak. Arabako Zalduondon, adibidez, euskaldunak %1,6 izatetik %36,9ra igo dira 30 urte horietan, eta etxean nagusiki euskara erabiltzen dutenak 1991n %0,0 izatetik 2011n %12,8 izatera pasatu dira. Tankera horretako joera positiboak antzematen ditugu beste udalerrri askotan ere: Amurrión, Agurainen, Kanpezun, Zallan... Aurkako muturrera joz gero, euskaldunak %94,9 izatetik %73,1ra jaitsi dira Bizkaiko

Udalerrri euskaldunetako egoerak gehiago du elebitasun egoera orekatu samarretik euskararen erabateko nagusitasunetik baino. Pentsa daiteke gaur egungo Euskal Herrian elebitasunaren ideiatik gertuen egon daitezkeen inguruak horiek direla.

Gamiz-Fikan, eta udalerrri horretan etxeko hizkuntza gisa nagusiki euskara erabiltzen dutenen kopurua 1991ko %86,3tik 20 urte geroagoko %43,3ra jaitsi da. Antzeko bilakaera negatiboak aurkitzen ditugu beste hainbat udalerritan, hala nola, Maruri-Jataben, Lizartzan edo Bakion.

G. GRAFIKOA. HIZKUNTZA GAITASUNA ETA ETXEAN HITZ EGITEN DUTEN HIZKUNTZA GAMIZ-FIKAN ETA ZALDUONDON (MUTURREKO BI ADIBIDE). EAE, 1981-2011



Iturria: norberak landua, EUSTATen 1981-2011ko zentsuetatik abiatuta.

Ba al da nolabaiteko logikarik hain bilakaera kontrajarriak azaltzeko orduan? Udalerrri eta eskualdekako datuak ikusita, intuitiboki edo, argi nabari da gehien euskaldundu direnak eskualde eta udalerrri erdaldunagoak izan direla eta, aitzitik, zonalde euskaldunagoek gutxiago aurreratu dutela edo atzera egin dutela euskarazko hizkuntza-gaitasunean eta etxeko erabileran.

Intuitiboki ikus daitekeen hori datuen bidez zehatz aztertu nahian, EAeko udalerrri guztiak bi multzotan banatu ditugu: udalerrri euskaldunak batetik (UEMAren irizpidearen arabera euskararen indizea %70etik gorakoa duten udalerrriak) eta gainerako udalerrri guztiak bestetik. Datuak horrela aztertuta, nahiko argiak dira ondorioak, orain azalduko dugun bezala.


3.2 Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera udalerrri euskaldunetan (eta gainerakoetan), 1981-2011

Udalerrri euskaldunetan, joera bat baino gehiago antzematen dira aztertutako epealdiaren barruan, hamarkadaz hamarkada. Horrela, gora egin zuen euskaldunen kopuruak 1981-2001 tartean: %69,8tik %75,5era. 2001etik aurrera, berriz, atzera egin du, eta euskaldunak %72,3 izatera pasatu dira.

Oso bestelakoa izan da gainerako udalerrietako joera: euskaldunen ehunekoa asko handitu da, 1981ko %13,4tik 2011ko %30,9ra hain zuzen.

Horrela, bada, EAEko gainerako udalerrietan ez bezala, euskaldunen kopurua ez da asko handitu udalerrri euskaldunetan azken 30 urteotan, eta azken hamarkadan, gainera, atzera egin du euskaldunen pisuak.

H. GRAFIKOA: EUSKALDUNEK HIZTUN GUZTIEKIKO OSATZEN DUTEN EHUNEKOA UDALERRI EUSKALDUNETAN ETA GAINERAKOETAN. EAE, 1981-2011




Iturria: norberak landua, EUSTATen 1981-2011ko zentsuetatik abiatuta.

3.3 Lehen hizkuntzaren bilakaera udalerrri euskaldunetan (eta gainerakoetan), 1986-2011

Udalerrri euskaldunetan dezente egin du atzera euskara lehen hizkuntza zutenen kopuruak azken mende laurden honetan: %68,7koa zen 1986an eta %58,4koa 2011n. Gainerako udalerrietan ere apur bat jaitsi da euskara lehen hizkuntza duten herritarren kopurua: 1986ko %12,4tik 2011ko %11,6ra, hain zuzen ere. Jaitsiera orokorra izan da, hortaz, baina handiagoa udalerrri euskaldunetan gainerakoetan baino.

I. GRAFIKOA: LEHEN HIZKUNTZA EUSKARA DUTENEK HIZTUN GUZTIEKIKO OSATZEN DUTEN EHUNEKOA UDALERRI EUSKALDUNETAN ETA GAINERAKOETAN. EAE, 1986-2011



Iturria: norberak landua, EUSTATen 1986ko biztanleria estatistikatik eta 1991-2011ko zentsuetatik abiatuta.

EAEko udalerrri guztiak bi multzotan banatu ditugu: udalerrri euskaldunak batetik (UEMAren irizpidearen arabera euskararen indizea %70etik gorakoa duten udalerrriak) eta gainerako udalerrri guztiak bestetik.


Udalerrri euskaldunetan dezente egin du atzera euskara lehen hizkuntza zutenen kopuruak azken mende laurden honetan: %68,7koa zen 1986an eta %58,4koa 2011n.

Euskararen erabilera nabarmen atzeratzen ari da udalerrri euskaldunetako etxeetan eta, oso poliki bada ere, aurrera egin du pixka bat gainerako udalerrietako etxeetan.

3.4 Euskararen etxeko erabileraren bilakaera udalerrri euskaldunetan (eta gainerakoetan), 1991-2011

Euskararen erabilera jaitsi egin da udalerrri euskaldunetako etxeetan azken 20 urteotan. 1991. urtean, hiztunen %56,4k euskara erabiltzen zuten nagusiki etxean. Kopuru hori %47,5era jaitsi zen 2011. urtean. Udalerrri euskaldunetako etxeetan ez bezala, euskararen erabilerak gora egin du apur bat gainerako udalerrietan, eta 1991n %6,6 izatetik egun %7,5 izatera pasatu da. Aurkako joerak aurkitzen ditugu, hortaz, ikertutako bi multzoetan: euskararen erabilera nabarmen atzeratzen ari da udalerrri euskaldunetako etxeetan eta, oso poliki bada ere, aurrera egin du pixka bat gainerako udalerrietako etxeetan.

J. GRAFIKOA: ETXeko HIZKUNTZA NAGUSIKI EUSKARA DUTENEK OSATZEN DUTEN EHUNEKOA UDALERRI EUSKALDUNETAN ETA GAINERAKOETAN. EAE, 1991-2011



Iturria: norberak landua, EUSTATen 1991-2011ko zentsuetatik abiatuta.

3.5 Laburtuz: udalerrri erdaldunak euskalduntzen ari dira eta euskaldunak erdalduntzen

Udalerrri euskaldunetan, beraz, euskaldunen pisua jaitsi egin da azken 10 urteotan, eta indartsu jaitsi dira, halaber, euskara lehen hizkuntza zuten herritarren kopurua eta etxeetan euskara erabiltzen dutenena. Joera hori ez dator bat, oro har, gainerako udalerrietan ageri denarekin. Horietan indartsu egin du gora euskaldunen kopuruak eta ez da bilakaera nabarmenagirik ikusten lehen hizkuntzaren erabilerari eta etxeko erabilerari dagokionez.

Orokorrean, hortaz, bilakaera-datuek irudi nahiko koherentea osatzen dute: aztertutako hiru adierazleetan, EAeko joera positibo orokorraren kontra, euskarak atzera egin du udalerrri euskaldunetan 1991. urtetik eta, batez ere, 2001. urtetik aurrera.

4. BILAKAERA XEHEA: UDALERRI MULTZOEN BILAKAERA, JATORRIZKO EUSKALDUN-DENTSITATEAREN ARABERA

I

4.1 Udalerri multzoak, duela 30 urteko euskaldunen dentsitatearen arabera

Aurreko atalean, EAEko udalerrriak bi multzo nagusitan banatuta aztertu ditugu. Talde horiek oso zabalak direla jakinda, oraingoan askoz ere xehago egingo ditugu taldeak. Atal honetan, honako hamar talde hauetan multzokatuko ditugu EAEko udalerrriak, 1981. urtean euskaldunek hiztun guztiekiko osatzen zuten ehunekoaren arabera:

- 1981. urtean euskaldunak hiztunen %90 eta %100 bitartean ziren udalerrriak.
- 1981ean euskaldunak %80-90 zirenak.
- 1981ean euskaldunak %70-80 zirenak.
- 1981ean euskaldunak %60-70 zirenak.
- 1981ean euskaldunak %50-60 zirenak.
- 1981ean euskaldunak %40-50 zirenak.
- 1981ean euskaldunak %30-40 zirenak.
- 1981ean euskaldunak %20-30 zirenak.
- 1981ean euskaldunak %10-20 zirenak.
- 1981ean euskaldunak %0-10 zirenak.

Jatorrizko (1981eko) euskaldun-dentsitatearen arabera hamar multzo horiek finko mantenduta, udalerri multzo horietan azken 20-30 urteotan izan den bilakaera aztertu dugu, honako hiru aldagai hauei dagokienez: hizkuntza-gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza.

4.2 Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera jatorrizko dentsitate multzoetan, 1981-2011

Hiztun guztien artean euskaldunek osatzen duten ehunekoak gora egin du nabarmen EAEn azken 30 urteotan: %21,6 ziren 1981. urtean eta 2011. urtean, berriz, %37,2. Bilakaera hori, ordea, ez da batere homogeneoa izan udalerrien abiapuntu soziolinguistikoa aintzat hartuta. Horrela, 1981ean euskaldunek udalerrietan zuten pisua kontuan hartuta, honako joera hauek antzematen dira:

- 1981. urtean euskaldun-dentsitate handiena zuten udalerrien multzoan (euskaldunak %90-%100) egonkor agertzen zaigu eus-

Aztertutako hiru adierazleetan, EAEko joera positibo orokorraren kontra, euskarak atzera egin du udalerrri euskaldunetan 1991. urtetik eta, batez ere, 2001. urtetik aurrera.

**Euskaldunak
1981 urtean
%90-%100 ziren
udalerrietan,
batez beste
euskaldunak
%94,5 ziren
euskaldunak
%94,5 ziren
1981ean eta
%83,9 2011n.
Hurrengo bi
multzoek (%80-
%90, %70-%80)
galera txikiak
izan dituzte
aztertutako 30
urteetako
epealdian.**

kaldunen ehunekoa 1981-1991 aldian; 1991-2001ean jaitsi egiten da euskaldunen ehunekoa, eta jaitsiera are gehiago sakontzen da 2001-2011 tartean. Aldi osoa aintzat hartuta, multzo honetan euskaldunak %94,5 ziren 1981ean eta %83,9 2011n.


- Hurrengo bi multzoek (%80-%90, %70-%80) galera txikiak izan dituzte aztertutako 30 urteetako epealdian, eta datuetan sakonduz ikusiko dugu joera aldakorra izan dutela aztertu ditugun hiru hamarkadetan: 1981-1991n euskaldunen kopurua igotzen ikusi zuten udalerri horiek; 1991-2001ean egonkor iraun zuen eta azken hamarkadan jaitsi egin da. Aldi osoa aintzat hartuta, euskaldunen ehunekoa apur bat jaitsi egin da abiapuntua %80-%90ean zuten udalerrietan (%83,2tik %81,1era) eta maila berean azaltzen zaigu %70-%80koen multzoan, %74aren inguruan. Edonola ere, kontuan hartzeko datua da azken hamarkadan bi multzo horiek beherako joera argia hartu dutela.

- Hurrengo bi multzoek (%60-%70 eta %50-%60) euskaldunen ehunekoan gora egin dute epealdi osoa kontuan hartuta, baina azken hamarkadan beherako joera apala hartu dute horiek ere.

- Hurrengo bi multzoetan (%40-%50 eta %30-%40) euskaldunen kopuruak nabarmen gora egin du aztertutako 30 urteotan, nahiz eta azken hamarkadan hazkunde prozesu hori nahiko geldituta azaltzen zaigun.

- Azkenik, 1981. urtean euskaldun gutxien zituzten hiru multzoek (euskaldunak %0-%10, %10-%20 eta %20-%30) goranzko joera indartsua eta jarraitua, oraingoz etenik gabea, ageri dute. Horrela, 1981ean abiapuntu apalena zuten udalerriak hartzen baditugu (%0-%10 multzokoak) euskaldunen portzentajea %4,4tik %22,7ra igo dela ikusiko dugu. %10-%20 multzoko udalerrietan euskaldunak %15,7tik %33,1era igo dira eta %20-%30 multzokoetan %22,2tik %40,1era. Aipatzeko moduko datua da azken hiru multzo horietako udalerriek biltzen dutela EAEko biztanleriaren zati nagusia. 2011. urtean, 1.574.711 lagun bizi ziren horietan, EAEko biztanle guztien %72,2. Horiek horrela, hiru multzo horien joerak pisu handia du EAE osoko datuetan. Ondorioz, nahiz eta gainerako multzoetan (multzo euskaldunagoetan) joera bestelakoa izan, EAEko joera orokorra azken hiru multzo horiek finkatzen dutenetik hurbil azalduko zaigu.

K. GRAFIKOA. HIZKUNTZA GAITASUNAREN BILAKAERA, UDALERRIAK 1981eko DENTSITATE MAILAREN ARABERA MULTZOKATUTA. EAE, 1981-2011



1981. urtean euskaldun gutxien zituzten hiru multzoek (euskaldunak %0-%10, %10-%20 eta %20-%30) goranzko joera indartsua eta jarraitua, oraingoz etenik gabea, ageri dute.

Iturria: norberak landua, EUSTATen 1981-2011ko zentsuetatik abiatuta.

Orokorrean, zenbat eta abiapuntu erdaldunagoa, orduan eta gehiago handitu da udalerrri horietako euskaldunen kopurua. Udalerrri euskaldunenek (1981eko abiapuntuan euskaldunak %70etik gora zituztenek), ordea, atzera egin dute, euskaldunetan euskaldunenek bereziki. Atzerakada hori 2001-2011 hamarkadan gertatu da nagusiki, nahiz eta lehenagotik ere bazetorren. Azken hamarkada horretan, abiapuntuan euskaldunak %30etik behera zituzten hiru multzoetan bakarrik egin du gora euskaldunen ehunekoak, eta gainerako multzoetan geldialdia edo atzerakada gertatu da.


4.3 Lehen hizkuntzaren bilakaera jatorrizko dentsitate multzoetan, 1986-2011

Lehen hizkuntza euskara duten herritarren kopuruak behera egin du EAEn azken 25 urteotan: %20,6koa zen 1986an eta %18,8koa 2011n. Jaitsiera hori 1991-2001 tartean eta, batez ere, 2001-2011 tartean gertatu da. Datuak 1981eko dentsitate multzoen arabera aztertuta, zera ikusi dugu: lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak behera egin duela udalerrri multzo guzti-guztietan, multzorik erdaldunenean izan ezik (1981ean euskaldunak %0-%10 ziren udalerrrietan). Gainerako multzo guztietan jaitsi egin da lehen hizkuntza euskara duten herritarren pro-

**Zenbat eta
abiapuntu
erdaldunagoa,
orduan eta
gehiago handitu
da udalerrri
horietako
euskaldunen
kopurua.
Udalerri
euskaldunenek
(198zako
abiapuntuan
euskaldunak
%70etik gora
zituztenek),
ordea, atzera
egin dute,
euskaldunetan
euskaldunenek
berreziki.**

portzioa, eta beherakada handiagoa da udalerrri euskaldunagoetan. Horrela, goiko muturrera joz, ikusgarria da %90-%100 euskaldunak zituzten udalerrietan ageri den bilakaera: lehen hizkuntza euskara zutenak %94,0 ziren 1986an eta 2011n, berriz, %73,0.

L. GRAFIKOA. LEHEN HIZKUNTZAREN BILAKAERA, UDALERRIAK 1981eko DENTSITATE MAILAREN ARABERA MULTZOKATUTA. EAE, 1986-2011



Iturria: norberak landua, EUSTATEN 1986ko biztanleria estatistikatik eta 1991-2011ko zentsuetatik abiatuta.


4.4 Etxeko hizkuntzaren bilakaera jatorrizko dentsitate multzoetan, 1991-2011

EAE osoa aintzat hartuta, ez da aldaketa handirik izan azken 20 urteotan herritarrek etxean erabili ohi dituzten hizkuntzen banaketan. Etxean nagusiki euskaraz dihardutenak %13,9 ziren 1991. urtean, eta 2011. urtean, berriz, %13,6. Datuak jatorrizko dentsitatearen araberrako udalerrri multzoka aztertuta, ordea, joera aipagarriak ikusten dira. Horrela, euskararen erabilerak gora egin du eta gaztelaniarenak behera hiru multzo erdaldunenetan, abiapuntuko ezagutza maila %30etik beherakoa zuten udalerrietan. Aitzitik, gainerako multzo guztietan behera egin du euskararen erabilerak eta gora gaztelaniarenak. Muturreko talde euskaldunenaren datua aipatuz, euskaldunak 1981. urtean %90-%100 ziren udalerrietako etxeetan euskara nagusiki erabili ohi dutela erantzun dutenen kopurua %88,5etik %65,4ra jaitsi da, eta nagusiki gaztelania darabiltena diotenen

kopurua laukoiztu egin da hogeitun urteren buruan: %5,1ekoa zen 1991n eta %23,3koa 2011n. Hurrengo multzo euskaldunetan ere jaitziera handiak ikusten ditugu euskararen erabileran.

Euskararen erabilerak udalerri euskaldunetako etxeetan izan duen atzerakadak azken hamarkadan hartu du indar gehien, 1991-2001 hamarkadan ere gertatu zen arren.

M. GRAFIKOA. ETXeko HIZKUNTZAREN BILAKAERA, UDALERRIAK 1981KO DENTSITATE-MAILAREN ARABERA MULTZOKATUTA. EAE, 1991-2011 (NAGUSIKI EUSKARAZ EGITEN DUTENAK, %)



Iturria: norberak landua, EUSTATen 1991-2011ko zentsuetatik abiatuta.

%90-%100 euskaldunak zituzten udalerrietan ageri den bilakaera: lehen hizkuntza euskara zutenak %94,0 ziren 1986an eta 2011n, berriz, %73,0.

4.5 Aztertutako joerak laburtuz: zenbat eta abiapuntu erdaldunagoa, orduan eta gehiago egin da aurrera; zenbat eta abiapuntu euskaldunagoa, orduan eta gehiago egin da atzera

Duela 30 urte udalerriek zuten euskaldun-dentsitatearen arabera udalerriak multzokatuta, bilakaera-joera argiak antzematen dira. Asko laburtuz, datuek bi joera kontrajarri erakusten dituzte:

Abiapuntuan erdaldunenak ziren udalerriak euskalduntzen ari dira: euskaraz hitz egiteko gai direnen kopuruak asko igo dira udalerri horietan, eta euskararen etxeko erabilera ere igo egin da pixka bat. Zehazki, abiapuntu erdaldunena zuten udalerriak aintzat hartzen baditugu (1981 urtean bertako euskaldunak %10era iristen ez ziren horiek), ez da nolana hikoia 30 urteotan gertatu den aldaketa. 1981.

**Euskaldunak
1981. urtean
%90-%100 ziren
udalerrietako
etxeetan euskara
nagusiki erabili
ohi dutela
erantzun dutenen
kopurua
%88,5etik
%65,4ra jaitsi
da, eta nagusiki
gaztelania
darabilteela
diotenen kopurua
laukoiztu egin da
hogei urteren
buruan:
%5,1ekoa zen
1991n eta
%23,3koa 2011n.**

**Euskararen
erabilerak
udalerrri
euskaldunetako
etxeetan izan
duen
atzerakadak
azken
hamarkadan
hartu du indar
gehien, 1991-
2001
hamarkadan ere
gertatu zen
arren.**

urtean udalerrri horietako hiztunen %4,4 besterik ez zen euskalduna; gaur egun %22,7koa da euskaldunen portzentajea. Boskoiztu egin da, beraz, euskaraz hitz egiteko gai direnen ehunekoa. Etxeko erabileran ere igo egin da nagusiki euskara erabiltzen dutenen kopurua udalerrri horietan, 1981ko %1,1etik 2011ko %2,7ra, hain zuzen.

Zenbaki horiek adierazten duten errealitatea irudikatuz, pentsa daiteke duela 30 urte, udalerrri horietako herritar gehienentzat euskara hizkuntza bazterrekoa edo arrotza izango zela, euren egunerokotasunetik oso urrutikoa; udalerrri euskaldunagoetatik etorritako familia gutxi horien hizkuntza batzuetan, ghetto euskaltzalearen hizkuntza kasurik onenean, norbere esperientziarekin batere zerikusirik ez zuen hizkuntza edonola ere. Gaur egun, ordea, nahiz eta udalerrri horietako egunerokotasunean gaztelaniaren nagusitasuna oraindik ukaezina eta ia erabatekoa izan, euskara ez da jada hain errealitate urrunekoa biztanle gehienentzat. Hasteko, dagoeneko ia laurdenek dakite euskaraz hitz egiten eta kopuru hori nabarmen handiagoa da haur eta gazteen artean. Etxeko erabilerak ere gora egin du, eta pentsa daiteke beste alor batzuetan ere gora egingo zuela. Horiek horrela, garai batean hain erdaldunak ziren gune horietako herritar eta familia gehienentzat hurbilagoko errealitatea da gaur egun euskara duela 30 urte baino, zalantzarik gabe. Ez dezagun ahaztu, bestalde, habitat horren garrantzia kuantitatiboa: 1981 urtean euskaldunak %10etik behera ziren udalerrietan bizi baitira EAEko herritarren erdiak.

Ahulago bada ere, deskribatu berri ditugun joera bertsuak ikusten dira beste multzo hauetan ere, 1981n euskaldunak %10-%20 zirenetan, %20-%30 zirenetan eta abar.

Abiapuntuan euskaldunenak ziren udalerrriak, ordea, erdaldundu egin dira azken urteotan, aztertutako hiru parametroei erreparatuta betiere. 1981. urtean udalik euskaldunenetan (euskaldunak %90-%100 zirenetan), euskaraz hitz egiteko gai zirenen kopurua %94,5etik %83,9ra jaitsi da 1981-2011 tartean. Udalerrri horietan, gaitasunean baino esanguratsuagoa izan da jaitsiera lehen hizkuntzari eta etxeko hizkuntzari dagokionez: %94,0tik %73,0ra jaitsi da lehen hizkuntza euskara dutenen kopurua 1986-2011 tartean eta %88,5etik %65,4ra etxean nagusiki euskaraz aritzen direnen kopurua 1991-2011 tartean.

3. TAULA. HIZKUNTZA-GAITASUNAREN, LEHEN HIZKUNTZAREN ETA ETXEKO HIZKUNTZAREN BILAKAERA, UDALERRIAK 1981eko DENTSITATE MAILAREN ARABERA MULTZOKATUTA. EAE, 1981-2011 (LABURPENEA)

	Biztanleak (2011)	Ehunekoa (%)				Bilakaerak (%)			
		1981(*)	1991	2001	2011	1981-1991	1991-2001	2001-2011	1981-2011
HIZKUNTZA-GAITASUNA: EUSKALDUNEN %ak									
UDALERRI GUZTIAK	2.119.586	21,6	26,3	32,3	37,2	4,7	6,0	4,9	15,7
Euskaldunak %90-100 (1981ean)	34.724	94,5	94,2	90,6	83,9	-0,3	-3,6	-6,6	-10,6
Euskaldunak %80-90 (1981ean)	49.048	83,2	86,8	86,9	81,1	3,6	0,0	-5,8	-2,1
Euskaldunak %70-80 (1981ean)	79.662	73,8	78,1	77,9	73,7	4,2	-0,2	-4,3	-0,2
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	68.156	63,8	69,2	70,9	67,9	5,4	1,8	-3,0	4,1
Euskaldunak %50-60 (1981ean)	125.875	54,8	60,4	63,2	62,0	5,6	2,8	-1,2	7,2
Euskaldunak %40-50 (1981ean)	69.976	43,8	50,1	55,4	55,8	6,4	5,3	0,4	12,0
Euskaldunak %30-40 (1981ean)	158.710	37,2	45,6	51,9	52,3	8,5	6,2	0,5	15,2
Euskaldunak %20-30 (1981ean)	273.210	22,2	28,0	35,0	40,1	5,8	7,0	5,0	17,9
Euskaldunak %10-20 (1981ean)	187.329	15,7	20,3	27,6	33,1	4,6	7,4	5,4	17,4
Euskaldunak %0-10 (1981ean)	1.072.896	4,4	8,4	15,0	22,7	4,0	6,6	7,8	18,4
LEHEN HIZKUNTZA EUSKARA DUTENEN %ak									
UDALERRI GUZTIAK	2.119.586	20,6	20,6	19,9	18,8	0,0	-0,7	-1,1	-1,8
Euskaldunak %90-100 (1981ean)	34.724	94,0	93,2	87,0	73,0	-0,9	-6,2	-13,9	-21,0
Euskaldunak %80-90 (1981ean)	49.048	83,2	82,8	80,2	71,0	-0,4	-2,6	-9,2	-12,2
Euskaldunak %70-80 (1981ean)	79.662	71,9	72,1	68,6	60,8	0,1	-3,5	-7,8	-11,1
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	68.156	62,1	62,9	58,6	52,2	0,8	-4,3	-6,5	-10,0
Euskaldunak %50-60 (1981ean)	125.875	54,3	53,9	50,9	45,2	-0,4	-3,1	-5,7	-9,2
Euskaldunak %40-50 (1981ean)	69.976	43,4	44,4	42,2	37,3	1,0	-2,1	-4,9	-6,1
Euskaldunak %30-40 (1981ean)	158.710	37,1	38,7	36,1	33,1	1,6	-2,6	-3,0	-4,0
Euskaldunak %20-30 (1981ean)	273.210	21,3	20,6	19,6	18,9	-0,7	-1,0	-0,7	-2,4
Euskaldunak %10-20 (1981ean)	187.329	14,7	14,1	13,2	12,4	-0,6	-0,9	-0,7	-2,2
Euskaldunak %0-10 (1981ean)	1.072.896	3,2	3,2	3,4	4,0	0,0	0,2	0,6	0,8
ETXEKO ERABILERA: NAGUSIKI EUSKARAZ HITZ EGITEN DUTENEN %ak									
UDALERRI GUZTIAK	2.119.586		13,9	13,7	13,6		-0,2	-0,1	-0,3
Euskaldunak %90-100 (1981ean)	34.724		88,5	81,3	65,4		-7,2	-15,9	-23,1
Euskaldunak %80-90 (1981ean)	49.048		75,0	72,1	62,4		-2,9	-9,7	-12,6
Euskaldunak %70-80 (1981ean)	79.662		60,0	58,5	49,0		-1,4	-9,5	-10,9
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	68.156		47,7	46,0	39,7		-1,8	-6,2	-8,0

Euskaldunak %50-60 (1981ean)	125.875	38,2	36,3	33,5		-1,9	-2,8	-4,7
Euskaldunak %40-50 (1981ean)	69.976	31,9	29,2	26,3		-2,7	-2,9	-5,6
Euskaldunak %30-40 (1981ean)	158.710	23,8	23,0	22,0		-0,7	-1,1	-1,8
Euskaldunak %20-30 (1981ean)	273.210	9,7	9,5	11,3		-0,2	1,8	1,6

Iturria: norberak landua, EUSTATen 1981-2011ko zentsuetatik eta 1986ko biztanleria estatistikatik abiatuta.

Kopuru horiek aditzera ematen dutenez, duela 30 urte euskararen nagusitasun soziala oso sendoa zuten udalerri multzo bat bazen EAEn (55 udalerrik osatzen zuten multzo hori eta 33.605 herritar bizi ziren bertan, EAEko herritar guztien %1,6). Udalerri horietan ahuldu egin da euskalduntasun hori, aztertutako datuen arabera betiere, eta euskarak zuen nagusitasuna nabarmen pitzatzen ari da.

Ahulago bada ere, deskribatu berri ditugun joera bertsuak ikusten dira (azken hamarkadan bereziki) beste multzo hauetan ere, 1981n euskaldunak %80-%90 zirenetan, %70-%80 zirenetan eta abar.

5. HABITAT SOZIOLINGUISTIKOEN BILAKAERA EAEN, 1981-2011. MUTURREKO HABITATAK AGORTZEN

I

5.1 Multzo mugikorrek habitaten bilakaera aztertzeko

Ikusi berri dugunez, bilakaera soziolinguistikoa ez da homogeneoki gertatu lurraldean eta, oro har, zenbat eta abiapuntu erdaldunagoa, orduan eta gehiago egin da *aurrera* euskalduntzean eta zenbat eta abiapuntu euskaldunagoa, orduan eta gehiago egin da *atzera*. Hori dela eta, pentsatzekoa da azken 30 urteotako joerak aldaketak eragingo zituztela EAEko habitat soziolinguistikoen osieran. Horixe aztertu nahi dugu, hain justu, atal honetan, udalerririk habitat soziolinguistikoko batetik bestera nola aldatu diren azken 30 urteotan. Eta, ondorioz, nola habitat batzuk indartzen eta beste batzuk ahultzen joan diren. Argitu dezagun artikulu honetan oso adiera xumean erabiliko dugula “habitat soziolinguistikoa” eta, zehazki, udalerrietan dagoen euskaldun-dentsitatearekin lotuko dugula zuzenean, ikuspegi teoriko batetik kontzeptuak eskatuko lukeen esanahi zabalagoa landu gabe.

Kasu honetan, zentsu-urte bakoitzean udalerri bakoitzak duen euskaldun-dentsitatea aintzat hartuta, hamar multzo sortuko ditugu zentsu-

urte bakoitzerako. Horrela, 1981eko datuak hartu, eta urte horretan herritarren %90-%100 bitarte euskaldunak ziren udalerriek osatuko dute lehen multzoa, %80-%90 bitartekoek bigarrena, %70-%80 bitartekoek hirugarrena, eta abar. Berdin egin dugu 1991., 2001. eta 2011. urteetarako ere. Udalerriak horrela sailkatuta, taldekatze aldakorra izango da urtetik urtera, eta horrela, urtetik urtera udalerriak multzo batetik bestera nola aldatzen diren aztertu ahal izango dugu. Ondorioz, indartzen ari diren eta ahultzen ari diren habitatak zehaztuko ditugu.

5.2 Euskararen habitaten bilakaera zenbakitan, 1981-2011

Ondoren datozen tauletan, urtez urte habitat horien pisua nola aldatu den aurkezten da, udalerri kopuruan, biztanle kopuruan eta euskaldun kopuruan. Hiru taula horietako datuei begiratuta, argi antzematen da multzo guztiak handitu direla bai udalerri kopuruan, bai biztanle kopuruan eta baita euskaldunen kopuruan ere, muturreko biak izan ezik:

- Hamar multzoen artean erdaldunena (euskaldunak %10era iristen ez ziren udalerriena) desagertu egin da. Dagoeneko ez dago ezaugarri horietako udalerri bakar bat ere EAEn. Azpimarra dezagun 1981. urtean multzo hori zela guztien artean nagusia, udalerri eta biztanle gehien biltzen zuena. Are gehiago, EAEko biztanleen erdiak baino gehiago (%52,3) euskaldun dentsitate oso txikiko (%10etik beherako) udalerri horietan bizi ziren 1981. urtean. Gaur egun, esan bezala, desagertu egin da habitat mota hori.
- Aurkako muturrean, multzo euskaldunena (euskaldunak %90-%100 bitartean dituzten udalerriek osatzen zutena) ez da desagertu, baina atzera egin du izugarri. 1981. urtean 56 udalerri zeuden multzo horretan eta 33.605 biztanle bizi ziren horietan. Gaur egun 13 udalerri txikik besterik ez dute ezaugarri hori, eta 4.003 biztanle bakarrik bizi dira horietan. Hau esateko datu estatistikorik ez dugun arren, kontuan hartu behar da, gainera, euskaldunen dentsitatea (ia) erabatekoa den habitat horren galera-joera askoz lehenagotik zetoirela, eta 1981erako ere oso ahuldua azaltzen zitzaigula habitat hori, berez lehenago izan zenarekin alderatuta. 1981ean, izan ere, EAEko herritarren %1,6 besterik ez ziren bizi mota horretako udalerrietan. Galera-joera hori eten beharrean, ordea, sakonduz joan da azken hiru hamarkadetan, geroz eta indar handiagoarekin, gainera. 2011. urtean EAEko herritarren %0,2 bakarrik bizi dira habitat horretako udalerriren batean.

**Udalerriak
horrela
sailkatuta,
taldekatze
aldakorra izango
da urtetik urtera,
eta horrela,
urtetik urtera
udalerriak
multzo batetik
bestera nola
aldatzen diren
aztertu ahal
izango dugu.
Ondorioz,
indartzen ari
diren eta
ahultzen ari
diren habitatak
zehaztuko ditugu.**

4. TAULA. HABITATEN BILAKAERA, EUSKALDUNEN DENTSITATEAREN ARABERA:
UDALERRIAK. EAE, 1981-2011

	Kopuruak					Ehunekoak (%)				
	1981	1991	2001	2011	1981-2011	1981	1991	2001	2011	1981-2011
EAEko UDALERRI GUZTIAK	250	250	250	250	0	100	100	100	100	0
Euskaldunak %90-100	56	55	42	13	-43	22,4	22	16,8	5,2	-17,2
Euskaldunak %80-90	23	29	40	47	24	9,2	11,6	16	18,8	9,6
Euskaldunak %70-80	19	24	25	38	19	7,6	9,6	10	15,2	7,6
Euskaldunak %60-70	15	13	20	23	8	6	5,2	8	9,2	3,2
Euskaldunak %50-60	18	18	20	27	9	7,2	7,2	8	10,8	3,6
Euskaldunak %40-50	13	15	10	13	0	5,2	6	4	5,2	0
Euskaldunak %30-40	14	8	13	21	7	5,6	3,2	5,2	8,4	2,8
Euskaldunak %20-30	10	10	18	46	36	4	4	7,2	18,4	14,4
Euskaldunak %10-20	8	16	43	22	14	3,2	6,4	17,2	8,8	5,6
Euskaldunak %0-10	74	62	19		-74	29,6	24,8	7,6	0	-29,6

Iturria: norberak landua, EUSTATen 1981-2011ko zentsuetatik abiatuta.

5. TAULA. HABITATEN BILAKAERA, EUSKALDUNEN DENTSITATEAREN ARABERA: UDALERRI
HORIETAN BIZI DEN BIZTANLERIA. EAE, 1981-2011

	Kopuruak					Ehunekoak (%)				
	1981	1991	2001	2011	1981-2011	1981	1991	2001	2011	1981-2011
EAEko UDALERRI GUZTIAK	2.141.809	2.104.041	2.082.587	2.179.815	38.006	100	100	100	100	0
Euskaldunak %90-100	33.605	30.632	21.699	4.003	-29.602	1,6	1,5	1,0	0,2	-1,4
Euskaldunak %80-90	47.067	58.024	78.201	63.709	16.642	2,2	2,8	3,8	2,9	0,7
Euskaldunak %70-80	78.721	101.811	117.963	134.592	55.871	3,7	4,8	5,7	6,2	2,5
Euskaldunak %60-70	62.000	63.369	100.489	123.646	61.646	2,9	3,0	4,8	5,7	2,8
Euskaldunak %50-60	116.360	125.229	189.777	220.875	104.515	5,4	6,0	9,1	10,1	4,7
Euskaldunak %40-50	66.341	149.929	52.872	270.466	204.125	3,1	7,1	2,5	12,4	9,3
Euskaldunak %30-40	175.338	61.841	362.329	204.142	28.804	8,2	2,9	17,4	9,4	1,2
Euskaldunak %20-30	258.324	337.001	109.098	969.652	711.328	12,1	16,0	5,2	44,5	32,4
Euskaldunak %10-20	183.182	247.979	944.959	188.730	5.548	8,6	11,8	45,4	8,7	0,1
Euskaldunak %0-10	1.120.871	928.226	105.200	0	-1.120.871	52,3	44,1	5,1	0,0	-52,3

Iturria: norberak landua, EUSTATen 1981-2011ko zentsuetatik abiatuta.

6. TAULA. HABITATEN BILAKAERA, EUSKALDUNEN DENTSITATEAREN ARABERA: UDALERRI HORIETAN BIZI DIREN EUSKALDUNAK. EAE, 1981-2011

	Kopuruak					Ehunekoak (%)				
	1981	1991	2001	2011	1981-2011	1981	1991	2001	2011	1981-2011
EAEko UDALERRI GUZTIAK	447.776	544.102	656.980	789.439	341.663	100,0	100,0	100,0	100,0	0,0
Euskaldunak %90-100	31.074	28.655	19.826	3.574	-27.500	6,9	5,3	3,0	0,5	-6,5
Euskaldunak %80-90	37.998	49.093	65.186	51.459	13.461	8,5	9,0	9,9	6,5	-2,0
Euskaldunak %70-80	56.374	75.173	85.279	96.378	40.004	12,6	13,8	13,0	12,2	-0,4
Euskaldunak %60-70	38.270	41.250	62.848	78.013	39.743	8,5	7,6	9,6	9,9	1,3
Euskaldunak %50-60	61.796	68.659	101.576	117.826	56.030	13,8	12,6	15,5	14,9	1,1
Euskaldunak %40-50	28.050	69.884	23.719	110.940	82.890	6,3	12,8	3,6	14,1	7,8
Euskaldunak %30-40	63.233	21.588	121.765	72.537	9.304	14,1	4,0	18,5	9,2	-4,9
Euskaldunak %20-30	55.703	88.063	25.189	224.571	168.868	12,4	16,2	3,8	28,4	16,0
Euskaldunak %10-20	27.730	32.928	141.811	34.141	6.411	6,2	6,1	21,6	4,3	-1,9
Euskaldunak %0-10	47.548	68.809	9.781		-47.548	10,6	12,6	1,5	0,0	-10,6

Iturria: norberak landua, EUSTATen 1981-2011ko zentsuetatik abiatuta.

Gainerako multzoak handitu egin dira, eta udalerrri eta biztanle gehiago dituzte gaur egun duela 30 urte baino. Dena den, gure arreta azken hamarkadan jarriz gero, beste bi multzo ere ahultzen ikusiko ditugu, muturretatik hurbilen dauden hurrengo biak, hain zuzen:

- Bederatzigarren multzoa (euskaldunak %10 eta %20 bitartean dituzten udalerrriena) asko ahuldu da: 2001ean 43 udalerrri ziren eta 2011n 22, eta guztira 944.959 biztanle izatetik 188.730 izatera pasatu dira. Egungo joerak asko aldatzen ez badira, habitat hori ere desagertu egingo da hurrengo urteetan.
- Bigarren multzoak (euskaldunak %80-%90 bitartean dituztenak) gora egin du udalerrri kopuruan (40 izatetik 47ra pasatu da) baina jaitsi egin da biztanlerian: 78.201 zituzten 2001ean eta 63.709 2011n. Multzo horrek, izan ere, udalerrri txikiak *irabazi* ditu, baina udalerrri handiagoak *galdu*.

Multzokatzea hizkuntza-gaitasunaren arabera egin beharrean etxeko erabileraren arabera eginda ere, antzeko ondorioetara iritsi gara; kasu honetan nabarmenagoa da mutur euskaldunak ageri duen *agorraldia* mutur erdaldunean ikusten dena baino. Horrela:

- Euskararen erabilera-ingurune euskaldunenak agortuz joan dira azken bi hamarkadetan: 1991. urtean, 34 udalerrri zeuden etxean nagusiki euskara erabiltzen zuten herritarrak %90etik gora zituztenak, eta 15.369 lagun bizi ziren horietan; gaur egun ez da udalerrri bakarra gelditzen bertako etxeetan euskararen erabilera %90etik gorakoa duenik. Azterketaren muga %90tik %80ra jaitsita ere, on-

Abiapuntuan erdaldunenak ziren udalerriak euskalduntzen ari dira: ez da nolana hikoia 30 urteotan gertatu den aldaketa. 1981. urtean udalerrri horietako hiztunen %4,4 besterik ez zen euskalduna; gaur egun %22,7koa da euskaldunen portzentajea. Etxeko erabileran ere igo egin da nagusiki euskara erabiltzen dutenen kopurua udalerrri horietan, 1981ko %1,1etik 2011ko %2,7ra, hain zuzen.

torioak argiak dira: 1991. urtean 57 udalerrri ziren etxean nagusiki euskara erabiltzen zuten herritarrak %80tik gora zituztenak, eta 31.758 lagun bizi ziren horietan. Gaur egun, 3.300 lagun inguru bakarrik bizi dira etxean nagusiki euskara erabiltzen duten herritarrak %80tik gora diren 9 herrietan.

- Ingurunerik erdaldunenak ere (euskararen erabilera %10aren azpitik dutenak) ahuldu egin dira pixka bat, oraindik ere nagusi izaten jarraitzen duten arren (horrelako inguruneetan bizi dira gaur egun EAEko biztanleen erdiak baino gehiago).

5.3 Ondorioa: muturreko habitatak desagertzen ari; nolabaiteko konbergentziarako joera; konbergentzia hori norantz?

Zentsuetako datuen arabera, zonalde erdaldunenak euskalduntzen eta euskaldunenak erdalduntzen ari dira, eta EAEko zonaldeen aniztasun soziolinguistikoa murrizten. Joerak laburtuz, esan dezakegu muturreko habitatak desagertzen ari direla EAEn. Aztertutako epealdiaren hasieran (lehenago zer esanik ez), 1981. urtean, habitat soziolinguistikoak ugariagoak ziren EAEn: bagenituen (ia) erabat euskaldunak ziren udalerrri dezente eta bagenituen (ia) euskaldunik bat ere ez zuten udalerrri asko ere. Gaur egun, 30 urteren buruan, konbergentziarako joera da nagusi, eta udalerrri bakarra ere ez da gelditzen euskaldunik gabekoa edo oso euskaldun gutxikoa (%10etik beherakoa). Era berean, euskaldunen dentsitatea oso handia zuten udalerrriak ere (euskaldunak >%90) desagertzen ari dira. Gutxi batzuk gelditzen dira, baina duela 30 urte genituenen laurdenak; 4.000 lagun inguru baino ez dira bizi gaur egun horrelako udalerrrietan (30 urte lehenago 33.605 lagun bizi ziren euskaldunen dentsitatea >%90ekoa zen udalerrrietan). Tarteko habitatak, beraz, indartu egin dira eta muturrekoak desagertu edo ahuldu, 2001etik aurrera, bereziki.

Muturreko gune euskaldunenak eta erdaldunenak ahultzen, tarteko habitatak sendotzen, joera hori izendatzeko *konbergentzia* hitza erabili dugu arestian. Norantz jotzen du delako konbergentzia horrek? Zernolako etorkizun irudika daiteke aipatu joerek bere horretan jarraituz gero? Gaur egungo ikerketa mailatik abiatuta, ez dugu informazio sendorik galdera horiei zehatz erantzuteko. Edonola ere, ez dirudi delako *konbergentzia* edo *bateratze* prozesu hori bi hizkuntzen (euskara eta gaztelania) arteko nolabaiteko oreka egoera baterantz garatzen ari denik. Horrela, *konbergentzia* hori ez litzateke, nolabait esateko, elebitasun

orekatu samar batera bideratzen ariko (%50-%50 ingurukoa edo). Aitzitik, badirudi, azken bizpahiru hamarkadetako joerek indarrean jarraituko balute, euskarak nolabaiteko tokia baduen testuinguru nagusiki erdaldun baterantz joko genukeela: guztiek jakingo lukete gaztelaniaz, euskaraz dakitenak ere geroz eta gehiago izango lirateke (belaunaldi berrien artean bereziki), eta etxeko erabileran (alor horretako erabilerari buruzko datua landu dugu guk soilik) erdarak nagusitasun agerikoa izaten jarraituko luke.

6. BALORAZIOA (I): GEHIAGO DIRA 'AURRERATU' DUTEN ZONALDEAK GAINERAKOAK BAINO, ETA ASKO AURRERATU DA EAEKO ZONALDE ERDALDUNENETAN

Ikerketa honetan, gure helburu nagusia udalerri euskaldunak aztertzea izanik ere, EAEko panorama osoari begiratzeko parada izan dugu. Ikuspegi orokor horretatik, datuek argi erakusten dute gehiago direla euskaldunen kopuruan gora egin duten udalerriak behera egin dutenak baino. Aldeak, gainera, oso handiak dira. Horrela,

- EAEko 159 udalerritan euskaldunen ehuneko handiagoa dugu 2011 urtean 1981ean baino, eta horietan 2.055.986 lagun bizi dira (EAEko herritar guztien %94,3).
- Euskaldunen ehunekoak, ordea, atzera egin du 1981-2011 aldian 91 udalerritan, eta horietan 123.829 lagun bizi dira (EAEko herritarren %5,7).

Alderaketa etxeko erabilera aintzat hartuta eginez gero, hauek dira datuak:

- Etxean nagusiki euskara erabiltzen dutenak gehiago dira gaur egun 1991n baino EAEko 95 udalerritan, eta horietan 1.556.229 lagun bizi dira (EAEko herritar guztien %71,4).
- Euskara duela 20 urte baino gutxiago erabiltzen da etxean, ordea, 155 udalerritan, eta horietan 623.586 lagun bizi dira (EAEko herritarren %28,6).

Datuei jaramon eginez gero, hortaz, EAEko herritar gehienek inguru hurbila euskaldunagoa da gaur egun duela 20-30 urte baino. Kontua da joera nagusi gisa euskarak aurrera egin duen zonaldeak jatorriz er-

Zentsuetako datuen arabera, zonalde erdaldunenak euskalduntzen eta euskaldunenak erdalduntzen ari dira, eta EAEko zonaldeen aniztasun soziolinguistikoa murrizten. Joerak laburtuz, esan dezakegu muturreko habitatak desagertzen ari direla EAEn.

Zer-nolako etorkizun irudika daiteke aipatu joerek bere horretan jarraituz gero? Gaur egungo ikerketa mailatik abiatuta, ez dugu informazio sendorik galdera horiei zehatz erantzuteko. Edonola ere, ez dirudi delako konbergentzia edo bateratze prozesu hori bi hizkuntzen (euskara eta gaztelania) arteko nolabaiteko oreka egoera baterantz garatzen ari denik.

daldunagoak zirela, eta, alderantziz, abiapuntuan euskaldunenak ziren udalerrietan atzera egin duela euskarak aztertutako epealdian, betiere guk landutako aldagaiei jaramon eginez gero.

7. BALORAZIOA (II): ARNASGUNE GEOGRAFIKOAK ARRISKUAN

7.1 Arnasmuneen garrantziaz

Joera ezberdinak nagusitu dira, hortaz, jatorriz euskaldunagoak ziren udalerrietan eta jatorriz erdaldunagoak zirenetan. Eta kopuruek argi uzten duten EAEko herritar gehienengoa ingurunea euskaldundu egin dela azken 30 urteotan eta gutxiengo baten ingurunea erdaldundu egin dela. Horiek jakinda, galdera bat datorkigu burura: garrantzi berbera al dute hizkuntzaren egungo osasuna eta bizi-indarra neurtzerakoan eta euskararen etorkizuna bermatzerakoan hitzun multzo guztiek, habitat batzuek eta besteek? Gure ikerketaren helburuetatik kanpo gelditu da galdera horri erantzutea. Eta gure ikerketaren eremutik kanpo gelditu da, halaber, arnasmuneen izaeraz eta garrantziaz gogoeta egitea. Puntu honetan, ordea, ezinbestekoa deritzogu, guk landutako datuak interpretatzerako garaian, arnasmuneen gaia kokatzeari. Hona hemen gaia sakon aztertu duen Mikel Zalbidetik zer dion arnasmuneei buruz:

“Zer da arnasmunea? (...)”

Euskaraz nolabait esateko, demografia aldetik euskara “bere kabian” sentitzen den bilgunea, inork xaxatu eta eraso gabe “etxeko jaun” sentitzen den eremua. Hori da, funtsaren funtsean, Fishman-en physical breathing space edo arnasmunea.

Euskaldunak euskaldunekin euskal giro sendoan bizi diren lekuetan, gurasoen hizkuntza belaunez belau eskuratzen den lekuetan, hizkuntza-plan-gintzarik eta inolako interbentzio berezi (zenbaitentzat “xelebre”)-rik gabe diharduten ingurumenetan, horietan dago euskara bizien. Hor du euskarak osasunik hoberena. Hori da euskal arnasmune petoa, hizkuntzaren belaunez belaueneko transmisioa bere betean (beste leku gehienetan baino askoz nabarmenago) segurtatzen duena.

Aparteko antolamendurik gabe ikasten dute horietan haur txikiek bertako hizkuntzan. Hala ikasten dute hitz egiten. Lehenik hitz egiten eta gero, eskola eta abar lagun, irakurtzen, idazten eta bertan ahoz aho dabilen hizkuntza horren errejistro eta aldaera jaso, landu, formalizatuagoak erabiltzean.

Hori da osasun oneko hizkuntzen belaunez belaueneko jarraipen-bide normala, prototipikoa. (...)

Lehentasuna dute, horregatik, hizkuntzari bizirik eutsi nahi bazaio eta indarberritu egin nahi bada. Horiek dira, Fishman-en eta beste zenbaiten ustean, hizkuntza indarberritzeko saioaren abiaburu natural eta baliagarrienak. Hori gabeko normalkuntza ez da normalkuntza. Ingurumen horien zaintza-ardura bigarren edo hirugarren lehentasun-mailara daramana ere ez.”¹

Zalbidek azaldutako ikuspegia aintzat hartzea ezinbestekotzat jotzen dugu ikerketa honek azaleratutako hainbat joera baloratzerakoan. Ezer baino lehen, ordea, argitu dezagun guk landutako “udalerri euskaldunen” eta “arnaguneen” artean egon daitekeen harremana.

7.2 Udalerri euskaldunak eta arnaguneak

Bat ote datoz UEMAren irizpidearen arabera “euskaldun” izendatutako udalerrien multzoa eta “arnagune” izendapenaren azpian biltzen direnak? Udalerri euskaldunen definizio operatiboa zein den argitu dugu artikulu honen hasieran, metodologiaren atalean: udalerri euskalduntzat jo ditugu euskararen indizean %70a gainditzen duten udalerri guztiak (esan bezala, praktikan, euskaldunen kopurua %60tik gora duten udalerriak sartzen dira udalerri euskaldunen multzoan). *Arnagune* kontzeptuaren aurkezpena ere egin berri dugu Zalbideren eskutik. Nola operatibizatu, ordea, *arnagune* kontzeptua? Zer-nolako irizpide zehatz eta neurgarriak erabili arnagune diren udalerriak eta ez direnak finkatzeko?

Arnaguneen kontzeptua taxuz operatibizatzeraz jo nahiko bagenu, ziur aski ez genuke aldagai bakarraren arabera definituko eta, gutxienez, txosten honetan landutako hiru aldagaien konbinaketa posibleak (ezagutza, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza) hartuko genituzke aintzat. Horrek, ordea, gure ikerketaren helburua eta artikulu honen planteamendua gainditzen dituen berariazko azterketa eskatuko luke. Langintza hori oraingo beste baterako utzita, egin dezagun oinarrizko hurbilpen xumeago bat udalerriei buruz dugun zuzeneko ezagutzan oinarrituta: “udalerri euskaldun” izendatzen ditugun udalerri guztiak ez ditzakegu “arnagune geografikotzat” jo, udalerri horietan ez baitira ageri arnaguneak definitzerakoan aipatutako baldintzak. Adibidez, Elorrion (euskaldunak %61,3), Tolosan (%66,1), Mundakan (%66,2), Zarautzen (%70,0) edo Bermeon (%72,7), euskara EAEn batez beste den baino askoz ere indartsuago izanda ere, gaztelaniaren pisua ere handia da, eta udalerri horietan ez da erraza euskaraz normaltasunez besterik gabe bitiztea. Ez dirudi, hortaz, udalerri euskaldunen multzoko beheko aldean ageri diren udalerriak (euskaldunak %60, %65, %70... dituzten horiek) gaur

Garrantzi berbera al dute hizkuntzaren egungo osasuna eta bizi-indarra neurtzerakoan eta euskararen etorkizuna bermatzerakoan hiztun multzo guztiek, habitat batzuek eta besteek? Gure ikerketaren helburuetatik kanpo gelditu da galdera horri erantzutea.

Bat ote datoz UEMAre irizpidearen arabera “euskaldun” izendatutako udalerrien multzoa eta “arnasgune” izendapenaren azpian biltzen direnak?

Nola operatibizatu arnasgune kontzeptua? Zernolako irizpide zehatz eta neurgarriak erabili arnasgune diren udalerriak eta ez direnak finkatzeko?

egun “arnasgune” deitzea egokiegia denik. Udalerri horiek arnasgune izatera iritsi ahal izango dira urte batzuk barru euren euskalduntasunean sakontzen badute, baina gaur egun ezin esan udalerri horietan euskara “etxeke jaun” denik.

UEMAREN udalerri euskaldunen definizioan sartzen diren udalerri euskaldunenak hartzen baditugu, berriz, ikusiko dugu arnasguneen definizioarekin bat datozela oro har udalerri horiek, bertan euskara “bere kabian” sentitzen delako eta “etxeke jaun” delako eta hizkuntza hori esparru gehienetan normaltasun handiz erabiltzeko baldintza sozialak daudelako. Izendapen hori, bada, egokia izan daiteke, udalerri euskaldunenentzat. Adibidez: Baliarrainen (euskaldunak %95,8), Aulestin (%91,6), Aian (%88,1), Azpeitian (%83,6) edo Lekeition (%80,5).

Udalerrien zerrendari begiratuta, arnasguneen operatibizazioa udalerrietako euskaldunen ehunekoaren arabera egin nahiko bagenu, langa %75, %80 edo %85aren inguruan, hor nonbait, kokatu ahalko litzatekeela iruditzen zaigu. Arnasguneen bilakaerari buruz kopuru zehatzak landu ahal izateko irizpide bat finkatzea nahitaezkoa izanik, behin-behineko abiapuntutzat –guztiz eztabaidagarria izan liteke hori ere–, ariketa soil gisa, %80,0an kokatuko dugu artikulua honetan muga hori. Hots, ondoren egingo dugun ariketatxo egiteko, arnasgunetzat joko ditugu euskaldunak %80tik gora dituzten udalerriak eta ez ditugu arnasgunetzat joko gainerako udalerriak.

7.3 Arnasgune geografikoen bilakaera, 1981-2011


Aipatu dugun behin-behineko irizpide operatiboa aplikatuz, hots, euskaldunen kopurua %80tik gorakoa duten udalerriak joz arnasgunetzat, zein izan da udalerri horietako bilakaera soziolinguistikoa azken 30 urteotan?

1981ean euskaldunen dentsitatea %80tik gorakoa zuten udalerrien multzoan izandako bilakaera aztertuz gero, hona hemen landutako hiru aldagaietan antzemandako joerak:

- Euskaldunen kopurua jaitsi egin da: %88,0koa zen 1981ean eta %82,3koa 2011n.
- Lehen hizkuntza euskara duten hiztunen ehunekoa jaitsi egin da: %87,6koa zen 1986an eta %71,9koa 2011n.

- Etxeko elkarrizketetan nagusiki euskara erabiltzen duten hiztunen ehunekoa jaitsi egin da: %80,5koa zen 1991n eta %63,6koa 2011n.

N. GRAFIKOA. HIZKUNTZA GAITASUNAREN, LEHEN HIZKUNTZAREN ETA ETXEKO HIZKUNTZAREN BILAKAERA. EAEko ARNAGUNEAK (1981 URTEAN EUSKALDUNAK >%80,0 ZITUZTEN UDALERRIEN MULTZOA), 1981-2011



Iturria: norberak landua, EUSTAten 1986ko biztanleria estatistikatik eta 1981-2011ko zentsuetatik abiatuta.

Bestalde, esan behar da, 2011n udalerri gutxiago ditugula arnagune izateko irizpide hori betetzen dutenak duela 30 urte baino: 79 ziren 1981ean euskaldunen %80ko langa gainditzen zuten udalerririk eta 60 dira 2011n. Arnagune horietan bizi diren herritarren kopuruak ere behera egin du: 80.672koa zen 1981ean eta 67.712koa 1981ean.

Laburtuz, bada, aztertutako hiru adierazleetan argia eta dezentekoa da arnaguneetan azken bizpahiru hamarkadetan euskarak izan duen atzerakada. Eta datuek, halaber, arnagune izaera duten udalerririk gutxitu egin direla adieraziko ligukete.

Baieztape argiak dira guk aztertutako datuen irakurketatik ondorioztatzen direnak. Gogora ekar ditzagun berriro gure ikerketaren mugak: metodologiako atalean aipatzen genuen bezala, zentsuetan biltzen den informazioa aztertzer mugatu gara eta gure ikergaitik kanpo gelditu da soziolinguistikoki garrantzitsuak diren beste errealitate batzuen azterketa. Are gehiago, berariaz aztertu ez dugun arren, zalantzarik ez dugu azken 30 urteotan, EAEko joera orokorarekin bat, udalerri euskaldunetan eta arnaguneetan ere igo egingo zela euskarak hainbat alorretan hartzen duen lekua, erabilera formalarekin lotutakoetan bereziki (Udalekiko harremanean, irakaskuntzan, osasun zerbitzuetan...).

Arnaguneen bilakaerari buruz kopuru zehatzak landu ahal izateko irizpide bat finkatzea nahitaezkoa izanik, behin-behineko abiapuntutzat – guztiz eztabaidagarria izan liteke hori ere–, ariketa soil gisa, %80,0an kokatuko dugu artikulu honetan muga hori.

**1981ean
euskaldunen
dentsitatea
%80tik gorakoa
zuten udalerrien
multzoan:**

- **Euskaldunen
kopurua jaitsi
egin da.
%88,0koa zen
1981ean eta
%82,3koa 2011n:**
- **Lehen
hizkuntza
euskara duten
hiztunen
ehunekoa jaitsi
egin da:
%87,6koa zen
1986an eta
%71,9koa 2011n.**
- **Etxeko
elkarrizketetan
nagusiki euskara
erabiltzen duten
hiztunen
ehunekoa jaitsi
egin da:
%80,5koa zen
1991n eta
%63,6koa 2011n.**

Edonola ere, guk landu ditugun hiru aldagaiak, gutxi izanda ere, ez dira garrantzirik gabeak hizkuntza baten egoera soziala aztertzeko, eta datuek deskribatzen duten bilakaerak irudi nahiko koherentea osatzen du: gainerako udalerrietan ez bezala, euskarak atzera egin du arnasguneetan 1991. urtetik eta, batez ere, 2001. urtetik aurrera. Azterketa zabalagoetan frogatu edo ezeztatu beharko da irakurketa hau zenbateraino orokortu daitekeen.

8. AURRERA BEGIRA ZER?

I Arnasguneen papera funtsezkoa baldin bada euskarari bizirik eusteko eta euskara indarberritzeko, eta horretarako arnasguneek bere arnasgune izaerari eustea ezinbestekoa baldin bada, kezka irakurtzekoak dira ingurune horiei buruz gure ikerketak azaleratu dituen joerak. Zer egin horren aurrean? Gure ustez, funtsezkoa da hiru ildo osagarri abian jartzea:

- Lehenik eta behin, gaia askoz sakonago ikertu beharra dago.
- Bigarrenik, arnasguneen garrantziaz eta hor eragitearen garrantziaz kontzientzia sakonago hartu beharra dugu.
- Eta hirugarrenik, jakina, eragin beharra dago azaldu ditugun joera kezkarri horiek iraultzeko.

8.1 Errealitatea sakonago ikertu beharraz, joeren arrazoiak aurkitzeraino

Ikerlan honekin fenomenoaren oinarrizko lehen hurbilpen deskribatzailea egoki egin dugulakoan gaude. Zertan sakondua badago ordea. Nolabait esateko, “egin beharreko ikerketaren” lehenengo kapitulua besterik ez da izan EAeko udalerrri euskaldunei buruzko gure ikerketa. Egoeraren eta joeren argazki egokia egiteko, ezinbestekoa litzateke, besteak beste, guk azal dutako dinamikak lurraldeka nola gertatzen diren aztertzea, udalerrri handiago eta txikiagoetako joerak zehatz begiratzea, adinaren aldagaia eta beste hainbat gure azterketan txertatzea... Hori gutxi ez, eta zentsuez gain, beste hainbat iturritara ere jo beharko genuke argi bila: Inkesta Soziolinguistikoa, Euskararen Erabileraren Kale-Neurketak, Arrue... Argazkia osatzeko, ezinbestekoa litzateke iturri horietatik ere edatea eta guk aztertu ez ditugun hainbat alor (lan mundua, hezkuntza, hedabideak, administrazioa, lagun arteak...) kontuan hartzea. Bestalde, Nafarroaren eta Ipar Euskal Herriaren egoera ezagutzea ere nahitaezko lana litzateke.

Guztiarekin, ikerketaren bidean aurrera joz, gure ikerketarekin lortutako oinarritzko deskribapenetik deskribapen zehatzago batera egin beharko genuke salto, eta hortik, deskribatutako joeren zergatietan sakontzera iritsi beharko genuke, oraindik erantzunik ez duten hainbat galdera funtsezkeri erantzuten hasteko: nola eragin dute arnasmuneen erdalduntzean pertsonen fluxuek, herri euskaldunetatik alde egindako herritarren fenomenoak batetik eta kanpotik etorritakoenak bestetik? Kanpotik etorritakoen artean zenbateraino izan da erabakigarria herri horietako etxebizitza eskaintza eta urbanizazio eredu? Horietaz gain, barruko zein faktorek eragin dute udalerri horietako bilakaera soziolinguistikoa?... Zergatiak ondo ezagutzea, faktore bakoitzak zer nolako garrantzia duen ahalik eta zehatzena finkatzea... funtsezko erronkak dira, gure aburuz, arnasmuneak eta udalerri euskaldunak sendotzeko bidean, esku-hartze eraginkorrak pentsatu eta lantzeko. Ikertu beharra dago, hortaz, ondoren eraginkorki esku hartzeko.

8.2 Kontzientzia hartu beharraz

Egoeraren eta joeren gaineko kontzientzia hartzea da, gure ustez, bigarren zeregin nagusia. Bereziki, jabetu egin behar dugu zein garrantzitsuak diren eremu euskaldun horiek euskararentzat eta horiek babesteak lehentasuna izan behar duela. Izan ere, irudipen argia dugu, duela 30 edo 50 urte euskararen berreskurapenean lehentasunak finkatu zirenean, gehientsuenok uste izan genuela euskara ahulago zegoen lurraldeetan indartzea zela lehentasuna. Hirietan eta gunen urbano erdaldunduetan euskara indartzeak zuen berebiziko garrantzia gutako gehien-gehienontzat, eta ikuspegi horretatik egin ziren nagusiki apustuak. Gehiegizko baikortasun batek eraginda akaso, uste izan genuen euskara indartsu zegoen eremuetan atzera egiterik ez zegoela, eta lehentasun osoa eman genion praktikan euskararentzat eremu geografiko berriak irabazteari. Hautemate horretan bat etorriko ziren, ziurrenik, garaiko agintari, euskaltzale eta euskaldun gehien-gehienak, guztiak ez esateagatik.

Garaia da ikuspegi hori moldatzeko eta eremu geografiko euskaldunenak zaintzeari eta indartzeari garrantzia emateko. Guztion zeregina da eremu horietaz hausnartzea, hizkuntzaren berreskurapenean lurralde horiek duten ezinbesteko paperaz jabetzea eta horietan eragin beharra lehentasun bihurtzea: udalerri horietako herritar zein kanpoko, agintari zein herritar xume, euskaltzale boluntario zein teknikari.

2011n udalerri gutxiago ditugula arnasmune izateko irizpide hori betetzen dutenak duela 30 urte baino: 79 ziren 1981ean euskaldunen %80ko langa gaitzen zuten udalerriak eta 60 dira 2011n. Arnasmune horietan bizi diren herritarren kopuruak ere behera egin du: 80.672koa zen 1981ean eta 67.712koa 1981ean.

**Zergatiak ondo
ezagutzea,
faktore bakoitzak
zer-nolako
garrantzia duen
ahalik eta
zehatzena
finkatzea...
funtsezko
erronkak dira,
gure aburuz,
arnasmuneak eta
udalerrri
euskaldunak
sendotzeko
bidean, esku-
hartze
eraginkorrek
pentsatu eta
lantzeko. Ikertu
beharra dago,
hortaz, ondoren
eraginkorki esku
hartzeko.**

8.3 Denok elkarrekin eraginkorki esku hartu beharraz

Egoeraren diagnostiko egoki bat eginda eta gaiaren garrantziaz jabetuta, nola ez, eragin egin beharko dugu guztion artean, artikulatu honetan eremu euskaldunenetan antzemandako joerak iraultzeko eta euskara indartzeko. Lana egoki egiten badugu, zalantzarik ez dugu fruituak jasoko ditugula. Azken 30 urteotako bilakaera soziolinguistikoak zerbait argi erakusten badu, hain justu, horixe baita: lanak bere fruituak ematen dituela. Adibidez, duela hamarkada batzuk belaunaldi berriak euskalduntzea lehentasunezko helburu gisa planteatu zen. Bitarteko asko jarri ziren bide horretan eta izugarritzeko lana egin da azken hamarkadotan. Emaitzak begi bistakoak dira, eta gaur egun haurren belaunaldia dugu euskaldunena.

Lanak fruituak ematen dituela jakinda, asmatu egin beharko dira udalerrri euskaldunak babesteko eta euren euskalduntasuna sakontzeko neurriak. Dauden hainbat politika indartu egin beharko dira eta berriak asmatu. Eta hori guztia aurrera eramateko bitarteko egokiak jarri.

Ziur naiz guztiok batera hiru bide horietan aurrera egiten badugu, errealitatea sakonago aztertuz, udalerrri euskaldunetan eragitea lehentasun bihurtuz eta eragiteko politika eraginkorrek abian jarriz, hogeitaz urte barru udalerrri euskaldunen eta arnasmuneeen sendotzeaz eta indarberritzeaz hitz egiten ariko garela. Zorionez, geroz eta kontzientzia sakonagoa eta kontsentsu zabalagoa antzematen da gai honen inguruan, eta horrek baikorrak izatera bultzatzen gaitu. ●

OHARRA

1. Ikerketaren emaitzen **txostena osorik hemen** aurkitu daiteke: <http://www.soziolinguistika.eus/files/UDALERRI%20EUSKALDUNAK%20EAEn.pdf>

AIPU BILBIOGRAFIKOAK

Bengoetxea Muxika, Xabier (2012): "Arnasmuneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasmuneren egoeraren behaketa". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 85 (75-118).

EUSTAT: Zentsu historikoak http://eu.eustat.eus/estadisticas/idioma_e/censo.html#axzz3eRADTFZp

Zalbide, Mikel (2008): "Arnasmunea: zenbait gogoeta". Argitaratu gabea.